

Zentinela Madrilen

El Mundo del País Vasco, 1991-11-22.

Bati izan dugu euskaldunok zaintzaileren bat Espainiako gilborra den Madrilen. Ez da, XVI.ean izan zen mundu osokoa, hegoaldeko euskaldun batzu hara begira jarrita geratu badira ere. Eta izan ditugu Madrileko frontean gizonak. Geure askatasuna galdu genuen 1839an, Espainiako Konstituzioan lehen aldiz sartarazi ginduen garai beltz hartako gizona da Pedro Egaña, jurista gazteiztarra, Araban Hermandadeko Diputatu nagusi izatez gain Madrileko Kongresurako hautatua zela bertan laburki hau ohartarazi zuena: "Si no se da satisfacción a las Vascongadas y Navarra en la cuestión de los Fueros, podría volverse a abrir la guerra". Gaur Madrilen zentinela lan bera egiten ari den gasteiztarra aipatu nahi dut: Joseba Azkarraga; ez, gero, alderdi batekoa edo bestekoa delako, ez nuke sinplekeria honetan erori nahi, baizik eta gaur Madrilen dugun gizonen artean fronte guztietan, ihesik gabe, aurpegia ematen ari delako. Pedro de Egaña mundu eta ospe handiko gizona izan zen Arabari eta Euskal Herriari egin zizkion zerbitzu hauen aurretik; hil eta gero Donostiak kale bat eskaini zion Fueroen defentsan egindako lanengatik Azkarraga, berriz, gaztedanik bere herriaren zerbitzuan apalki eta eten gabe ari dena. Bilbon 1937 fusilatua izan zen Jose Mari Azkarraga "Lur gorri" idazle euskaldunaren jatorriko loba da. Biak arabarrak eta mende eta erdi aldearekin Madrilen Euskal Herriaren askatasun bera defendatzen.